

«LEZOKO AEK-ren TXOSTENA»

1. BERTAKO A.E.K. ren HISTORIA

1.1. Azalpen orokorra

Hasieran, gaur egun A.E.K.-ren ildoak jarraitzen ez duen jende talde batek zeraman gau eskola moduko bat, ikastolaren lokaletan ematen zituztelarik klaseak. Duela hamalau bat urte utzi zuten, urte batzutako hutzunea geldituz. Gero beste tendentzia bateko jendeak ekin zion «gau eskola» berregiteari. Gero A.E.K.-k Oreretan zuen udal euskaltegian esamin bat, egin eta bertan sartu ziren, euskualdeko funtzionamendua egosten hasi zen martxan, momentu har genezake Lezoko A.E.K.-ren sorrera bezela, eskualde mailako koordinazioan sartzen zelarik. P.S.O.E. Oreretako alkatezara igo eta udal euskaltegia HABE-ra, liskarrak.



Lezoko A.E.K.-ren lehen ikasturtean Udal liburutegian ireki zen matrikulazioa, irakasle batzu etorri ziren kanpotik klaseak ematera, bertakoak ere ba-zeudelarik. Urte horretan udalari proposatu zitzaion munizipalizazio, plangintza bat. Partido guztiekin bilerak egin ziren eta azkenean udalak atzera bota zuen. Klaseak eskoletan eman ziren bi urtez edo, lokal propiorik ez bait zegoen. Gero lokal bila ibili ziren, ad: Zubitxoko etxe bat e.a. Geroztik eskoletan eman izan dira klaseak lokal faltagatik, Kultur etxea egin zenean bertako lokal batetara aldatu zelarik euskaltegia, Udalaren lokalak dira hauek, gaur egun ditugunak hain zuzen ere. Ikastalde kopurua dela eta txikiegia geratzen zaigu orain lokal hau.

Gaur egun dirulaguntza jasotzen dugu udaletxetik, sortzen zaigun zuloa betetzeko eta berriro hainbat ekitaldi antolatzeko.

1.2.- Ikaslegoarekiko datuak

Atal honetan azalduko ditugun datuak azken lau urtetakoak izango dira. Ostean doan taulan, ikusiko duzuen bezalaxe, lau urte horietan zein urrats eta urrats bakoitzean izan den ikaslego kopurua azaltzen da.

MAILA	IKASTURTEAK			
	86/87	87/88	88/89	89/90
1go URRATSA	16	31	13	12
2. URRATSA	13	14	—	—
3. URRATSA	15	12	29	25
4. URRATSA	—	—	13	12
5. URRATSA	—	12	—	12
6. URRATSA	12	—	—	—
7. URRATSA	—	—	16	—
ALFABETATZE	—	12	—	30
E.G.A.	—	—	—	—

Honekin batera, urte bakoitzean zenbat talde, urteko ordu kopuruak eta ratioak doakizue.

	IKASTURTEAK			
	86/87	87/88	88/89	89/90
TALDEAK ⁵	6	6	5	7
ORDUAK	17.550	22.644	19.215	24.570
IKASLEAK	56	81	71	91
RATIOA	9,2	13,5	14,4	13

Ikusten duzuenetz, zorionez nahiz eta nahikoa ez izan, urtez urte ikaslego kopurua handitzen joan da, lehen esan bezala ez guk edo Euskarak bezain beste.

Hurrengo pausoa bertan edo Lezoko euskaltegian lortzen diren emaitzak agertzea izango litzateke, hona hemen:

87/88	88/89	GUZTIRA
23,46	27,78	25,50

Emaitzak ikusirik, bermatrikulazio datak ematea ere egoki ikusten dugu:

IKASTURTEA	86/87	87/88	88/89	89/90
%	32,55	54,41	58,24	83,33

1.3. Aurrerapausu didaktikoak

A.E.K.-k urteetan zehar, irakaskuntz prozesua aurrera eramateko pedagogi metodo desberdinak erabili ditu, metodologiari arreta eta begirune berezia jarritz.

Ikasleagoa kontutan harturik, irakasleagoaren prestakuntzarako esfuertzu handiak egin ditu A.E.K.-k, eta haren emaitza metodo ezberdinen garapena izan da.

A.E.K. sortu zenean, gau-eskolen garaietan, metodo gramatikala zen nagusi. Gero marrazkiak eta elkarrizketak erabiliz, Jaldi Hadi metodoa erabiltzen da. Ikasleak errepikatzen zituen estrukturak eta errepikapenaren poderioz ikasten zuten.

Inglaterran ezaguna zen metodo komunikatiboa Euskal Herrira heldu zen eta A.E.K.-k praktikan jarri zuen. Hizkuntza elkar komunikatzeko tresna da eta, zentzu zabalean, komunikazioa hizkuntz irakaskuntzen objektibo nagusia da.

Metodo komunikatiboa, klaseen dinamikaz, ekintzen bidezko irakaskuntzara zabaltzen da, eta honekin loturik kulturgintza. Hau da kulturaren oinarrituko ekintzek bultzatuko dute irakaskuntza. Kulturaren oinarriturik eta herriari zuzendua, A.E.K.-ren nahia euskara zabaltzea da, euskara ez dadila gera euskaltegiak lau pareten artean, guk eremu guztietara zabaldu behar dugu euskara.

2. UDALAREN LOTURA A.E.K.-rekiko

Lezoko A.E.K.-k udaleko bi batzordetan parte hartzen du urte osoz:

* Euskara batzordean

* Kultura batzordean

Funtzionamendu hau dela eta herrian antolatzen ditugun kultur arloko ekintza gehienak udalak subentzionatuak izaten dira (ia beti koste osoa).

Bestalde ikasturtean sortzen den zuloa udalak estaltzen du. Honetarako urtez urte aurrekontu eta balantze bat aurkezten dugularik, hau euskara batzordearen eskutik joaten da. Dirulaguntza hauek etengabeak izan dira, 1986 eta 1987 urteak salbu, zeinetan dirulaguntza hau ukatua izan zen.

Gaur egun Lezoko A.E.K.-k erabiltzen dituen lokalak udalarenak dira.

Esan behar da, bai udalaren aldetik eta bai A.E.K.-ren aldetik hitzarmen bat egitekotan gabiltzala, honetan ari garelarik.



3. A.E.K.ren APORTAZIOA EUSKALGINTZARI

Era askotakoak dira A.E.K.-k euskalgintzari egiten dizkion aportazioak. Euskara sustatzeaz bat euskal kultura ere sustatzen bait dugu ekitaldi ugari antolatuz.

Ekitaldi batzu herriko jaietan kokatzen ditugu; eman dezagun ikastalde batek ekitaldi bat antolatzeko iniziatiba hartu duela, (beraiek landu duten gai baten inguruan edo ikasi duten zerbaiten inguruan) kaso hauetan, saiatzen gara ikastaldeen kultur ekintzak herriko jai mota ezberdinetan txertatzen. Badira urtean zegarko jaietan sartu gabe gelditzen diren ekitaldi txikiagoak hala nola; muralak, bideo emanaldiak e.a. Baina esan bezala jaien kontestuan kokatzen ditugu gehienetan.



Aipatu behar ere antolatzen ditugula urtez urte ohitura modura ikusten ditugun hainbat ekitaldi ere adibidez: Santo Tomaseko euskal feria, euskal liburu eta diska azoka, Olentzeroa, barrikotea, e.a.

Ekitaldi guzti hauen antolaketan, bai ikasle eta bai irakasleek hartzen dute parte. Lanaren banaketa bat egiten da eta koordinazio bilerak ondoren.

Ekitaldi hauetako batzu beste talde edo elkarteekin elkarlanean antolatzen ditugu, Lezoko elkarten dinamika ezberdinak kontutan hartuz. Punto honetan esan beharra dago alde batetik oso harreman onak ditugula herriko beste elkarteekin, beraiekin maiz biltzen garelarik, eta beste kasu batzutan harreman estuak, Euskara Taldea kasu. El-

karteekiko harreman hauek euskara nahiz kultura batzordeetan ematen dira batipat baina bai kale mailan ere.

Kontzientziaketa lanari dagokionez berriz, zera esan behar dugu, herrian beste talderik ezean A.E.K.-k egin behar izan duela lan hori, sortu, sortu ziren talde batzu, ad.: E.H.E. gero desagertu zirenak, ondorioz kontzientziaketa lana gure eskutan gelditu zelarik. Dena den, orain bada herrian Euskara talde bat berriki sortua, zeinekin elkarlanean aritzen garen kasu askotan. Gure kontzientziaketa lana egunerokoa da klasetan alde batetik eta kale mailan bestetik. Egiten ditugun gauza askoren artean aipatu behar, mahaia jarri plazan edozein egun seinalatu delarik, hala nola, Argia eguna, herriko jaiak, Egunkaria, firma bilketak e.a. Aipatu beharrekoak dira ere, txartelak, pankartak, euskararen jai ezberdinetarako deiak (autobusak jartzen ditugularik), gutunak euskarari egiten zaizkion erasoak salatuz eta abar luze bat.

LEZOKO A.E.K.

